

Deus gertatuko ez balitz bezala

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Uda sasoi honetako oporrak eta geldialdia –laburtzen ari dena, portzierto– aproposak izaten dira gogoetatzeko, lagunekin edo gure buruarekin; aste honetako bezalako eguraldiarekin eta zerbait goxoa dastatuz bada, hobeki. Liburu baten orrialdeen patxadan galtzea maite dut, ez dela deus gertatzen ematen duen naturan, edo tarteka –gero eta murrizagoak iruditzen zaizkidan aldiak– idazten ditudan zutabe hauetan.

Espiritualitatea. Hitza ez zait gustatzen, erruduntasun sentimendua iltza-

tu zigun erlijioarekin lotzen dudalako. Mesfidantzaz ez bada ikaraz begiratzen diedan mediumekin bertzela. Baina noizean behin izaten diren inspirazio une horietako batean, gosari lasai batean, hau lantzeko dagoen beharra aterazen. Izan ere, egunerokoan sartzen gara ezagutzen dugun mundu hau betitik eta betiko existituko balitz bezala.

Hain agudo doa dena... Berrikuntza teknologikoek gainezka egiten digute, gure garuna erritmo pausatuagoetara ohitua dagoelako. Horregatik, batzuetan gailu hauek itzali eta bizitzaren

testurak ukitzea behar dugu. Natura zaintzeko espiritualtasun bat behar dela irakurri diot Victor M. Toledo biologoari. Norberak egiteko ariketa da, meditatuz edo barnera so, intuizioz, gure txikitasuna umiltasunez onartuz. Harrituz, miretsiz, galdetuz. Jaiotzea zer magia den. Hiltzean nola pasatzen zaren segundo batean hemen egotetik auskalo nora. Naturan gertatzen ari denari, hau da, gertatzen ari zaigunari kasu egitea nahiko nuke –izurrite honetan, kasurako– ezer gertatuko ez balitz bezala egiteari utzita. •

Elektrizitateak itoko gaitu

**Xabier Mikel
Errekondo**

Elektrizitatearen prezioak urkatuko gaitu edo, nahiago baduzu, aulki elektrikora eramango. Energia ekoizle *lobby*-en prezioei eutsi ezinik, arrastan eramango gaitu elektrizitate korronteak... uholdeetan ur-korronteek hostoak nola.

Energiaren merkatuak azken hilabeteotan ezarri dituen prezio eskandalagarriek 110 €/kWh-ko langa erraz gainditu dute eta herritarrengan itolarri orokorra sortu ezintasunean bortxatuak sentiarazteraino, trapuzko jostailuak bagina lez hienalobbyen nahieran.

Iluna da argiaren faktura, ilunegia ezer ulertzeko, eta etengabe ziria sartzen ari

zaizkigu gobernua eta enpresak. Ziria denoi, baina zaurgarrienentzat odol-xurgaketa hutsa da... Mozkinengatik gupidarik gabe jarduten duen banpiro-lobbyak ez-painetatik darizkion herritar hauskorren odol tantak miazkatzen ditu zurrupatzeraino; Ignacio Sanchez Galan (Iberdrola), Jose Bogas (Endesa) eta abar.

Enpresek ez dute etsiko mozkinak biderkatzeko gose aseeginarekin. Larria da erakunde arduradunek, dela europar erakunde gorenak nola espainiar Gobernuak, hain oinarritzakoa zaigun argindarra haiek kontrolatzen duten merkatuaren esku uztea. Nago agintariak ate birakarietatik elektrika enpresetara egin saltoek

sobera argigarri uzten dutela egoera; espiral biziatsu akabaezina. Krimena.

Eta egoera mingarri honen erdian erki-degoko energia kontseilari Arantxa Tapiak elektrizitatearen prezioaren burbui-la eroa frackingaren aurka eta energia burujabetzaren alde diharduten herritar eta elkarteei egotzi die... Aurpegia behar du gero!

Non eta Jaurilaritzak energia burujabetzarantz urrats bakar bat ere eman ez duenean. Ez da kasualitatea Euskal Energia Erakundearen(EEE) politika, energia kutsakorrenen eta garestien aldekoea, gas, ziklo konbinatu eta errausketa enpresetan partaidetza handiekin. •